

## GIG 40

## AITZURIKO KOBAZULOAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,38**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Aitzuriko kobazuloak izen bereko lurmuturraren oinean daude, eta tamaina berdintsuko bi zulo handi dira; ahoa 15 metro inguru zabal eta 20 metro garai da bietan. Kobazuloen garapena SE norabidean gertatu da, eta 25 metro ingurukoa da gaur egun.

Bi barrunbe handi hauek Itziar formazioaren behealdean sortu dira; han, ipar-ekialderantz okertuta daude formazioa osatzen duten kareharriak eta tupak. Gertu dago Andutzeko faila (GIG 25), eta haren eraginez sortutako zenbait norabidetako zartaduretan zehar gertatu da, hain zuzen, higadura, bi kobazuloak sorrarazi dituena. Izan ere, zartadura horiek ahultasun-planoak izanik, itsasoak errazago erasozten ditu, eta azkenean zulo horiek sortu dira geruzekiko paralelo.

Erdi urperatuta dagoen burezur baten begi-zuloak omen dirudite bi kobazuloek.



Aitzuri ingurua, Itxaspeko begiratokitik ikusita.

## NOLA BERTARATU

Itxaspe kanpinetik *Sakoneta* ibilbidea hartu behar da, Itxaspeko begiratokiraino (IP S2).

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Ura behe-behean dagoenean bertaraino joan daiteke, baina arriskutsua da. Itxaspeko begiratokia erabilteza da egokiena. Itsasotik ere oso ondo ikusten da.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 555153 m / Y= 4794134 m / Alt.= 1 m



Aitzuriko kobazuloak gertutik, Amabirjinabistako begiratokitik ikusita.